

Hirugarrena. Izena: Foru parlamentarien ondare-ondasunei buruzko aitorpena

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1. a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalen tratamendurako baimena eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira; eta DBEOren 6.1.e): Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen jardunean burututako eginkizun bat betetzeko; Foru parlamentarien ondasunen aitorpena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 1., 24. eta 26. artikulua betetzeko. 19/1986 Foru Legea, azaroaren 17koa, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituena. 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzkoa. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 1995eko ekainaren 1ekoa.
- b) Tratamenduaren xedeak: Foru parlamentarien ondasunen aitorpena, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 1., 24. eta 26. artikulua betez. Aitorpen hori egitea baldintza bat da foru parlamentariaren izaera osoki eskuratzeko eta haren jarduerak izaera horrekin bateragarriak diren kontrolatzeko.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Foru parlamentariak.
- d) Datu-kategoriak: izen-deiturak, IFZ, data eta sinadura, bai eta ondare-ondasunen aitorpena ere, zeinak honako hauek barne hartuko baititu:
 - Hiri izaera duten ondasun higiezinak eta horien eskubideak
 - Landa izaera duten ondasun higiezinak eta horien eskubideak
 - Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak
 - Bizi-aseguruak
 - Entitate juridikoen kapital sozialeko partaidetzak
 - Zor publikoko tituluak, obligazioak, kutxa-bonuak eta baliokideak
 - Dazkan balore adierazgarriak
 - Inbertsio higigarrietarako sozietateen kapital sozialeko eta inbertsio higigarrietarako funtsetako partaidetzak
 - 1.500 euro baino gehiago balio duten automobilak, itsasontziak, bitxiak eta artelanak
 - Jabetza industrial edo intelektualeko eskubideak
 - Beste ondare-ondasun eta -eskubide batzuk
 - Datuen argibideak edo gehitzeak
- e) Hartzaile-kategoriak: ez dago lagapenik
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.

